


Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2001eko irailaren 28a, VI.urtea


Usurbil, 120. zenbakia



Herriko taldeak eta
beren egoitzak



**TXIMINIA
ALTZARIAK**



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

**Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia**

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Irailaren 28an 45 urte beteko dituzunez, zorionak **Esther** eta muxu haundi bat etxekoan partez



Nahiz eta irailaren 23an 79 urte bete, zu beti bezain majo eta tente. Zorionak **Praixku** etxekoan partez

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarre hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: urriak 12

Ekartzeko azken eguna: urriak 5

Udaltzaingoaren ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

Noaua aldizkaria!
Bordaberri 3
Usurbil

Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartearen badabilkizu edo eta herriko zerbaitez hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizuegu.

Ekutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Ekutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Urria

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	27		29	30

● Hurrengo alea

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Oriaraino **Alaraino

■ Asteburutan

*Oriotik **Aiatik

■ Asteburutan

Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Udarregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzaintza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkartea	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Bake epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09

Zer irizten?

Euskara aberasgarriena

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitx Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Ker-man Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko
jendaurreko
ordutegia:**

10.00-14.00 / 16.00-20.00

astegunetan

Herri baten aberastasunik handiena hizkuntza da. Menderik mende eta aleka-aleka osatutako harribitxitegia. Antzina-antzinatik, milaka urtetan, izaki eta egite bakoitzari bere hitza edo izendapenak emanez eta ezarriz moldatutakoa. Honetara, hitz bakoitza haribitxi da -harri preziatua- gizakiarekiko edo giza izatearekiko esanahi esturik baduelako. Hizkuntza da herri baten norabide eta historia, gizarteko egitura eta ikuspegi orokorra ongien ematen duena. Bera, neurrik gabeko altxor aberasgarriena.

Gaur, ari gara ikusten aurrerakuntza ederrik; duela gutxi ezin pentsa halakoak ditugu eskura. Egunik egun eta abiadurarik bizienean, giza asmakuntzak areagotzen ari, mutur-muturreneko teknikaz egokiturik; senti gaitezke, bai, handi eta harro, batez ere gizakion azken boladako zientzian eta teknikan egindako aurrepenagatik; atzo gaueko ilunarteak, goizerao guztia izan ohi ditugu ezaugarri eta argi, haizeak hodeiak une batetik bestera desargertarazten dituen bezala; baina hona hemen nire galdera: gaurko asmakuntzarik erakargarri eta lilugarrienak zer balio ote hizkuntza baten aldean?

Hasiera-hasierako gizakiaren ulermenezko baliabideak, zeinuak eta intziarik izan ziren; zeinuka eta intzirika jakinarazten bere desirak, gogoak eta pentsakizunak; baina burua go-tortzen eta janzen ari heinean, ari zen baitere euren arteko interkumunizazioa sendotzen eta areagotzen, eta honetara, HITZA asmatzeraino; hasierako hots eta intzirazko adierazpenak HITZ mamitu zituen, izaki eta egite bakoitzari izendapenak emanez.

Gerora, ezarian-ezarian, hitzen arteko komunztadurak eta erlazioak egiten hasi zen (gaur ere halaxe jarraitzen du, etenik gabe) HIZKUNTZA eratzeraino: hizkuntzak, hobeki esanda. Milaka eta milaka baitaude munduan zehar, tokian tokiko ezaugarri propioekin, bereizko ezaugarriekin: etnia bakoitzaren sustrai-sustraiz-

ko izaera-ezaugarriak irudikatuz.

Harrez geroztik, hizkuntza da eta izango gizakiarentzat tresnarik baliagarriena: bai interkomunikaziorako, bai aurrekuntza eta zientzietarako, bai bere bizimainak eta ohiturak irudikatze, guztietarako gertatuko zaio ezinbestekoa, eta bera izango transmititzaile egokiena eta zintzoena.

Gizakiaren lehen zantzuak historiaurrekoak ditugu leizezuloetan aurkitzen zaizkigularik. Duela milioika eta milioika urtekoak, arkeologo ospetsuen esanetan; orduetik hasten da gizakia, nolabait esateko, bere hizkuntza marrazten (idazten), bere bizipenak ezagutaraziz: naturaren eta ingurumenaren berri emanez, eta euren bizibide eta pentsakera transmitituz; ondotik, hortaz, gizakiak bi komunikazio- edo transmisio-bide izango ditu: ahozkoa eta idatzizkoa.

Antzinateko hartan, aho-transmisioa funtsezkoena izanik ere (aholtxorra ugaria bezain aberatsa da geure aurrekoena), gerora ordean, idatzizkoa nagusitu zitzaion, egun gaina zeharo hartua diolarik.

Orduetik zenbat marra (arrastoak, Udarregi bertsolarientzat), zenbat letra, zenbat lerro, zenbat orri, zenbat liburur, zenbat pergaminu, zenbat harlosa izkiriatuak, zenbat bertso eta ipuin jasoak, zenbat liburu pilatuak, zenbat..., zenbat..., zenbat... Batek daki! Kontagaitzak.

Hizkuntza izan da, da, zalantzarik gabe, gizakiaren transmisio-giltza, komunikabide-birika; hizkuntza, jakinduriaren euskarri, gordailu eta mezu-tegi; hizkuntza, aurrerakuntzarako ezinbesteko tresna; hizkuntza, asmakuntzarik nagusia; berarik gabe, ezer gutxi. Eskas!

Bestalde, eta bukatzeko, hizkuntza da NORTASUNAREN emaille, aparteko ezaugarriez jaxten gaituena; euskara, hortaz, EUSKAL IZATEAREN sustrai, ardatz eta muina; bera, aberasgarriena; eutsi diezaiozun. Ez dezagun gal.

Xabier Pikabea



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal Herra!

Portada:



Maria Jesus Del Pico

Palentziako Baltanas herrian jaio bazen ere 13 urterekin Txokoaldera etorri zen gurasoekin batera. Magisterio ikasketak egin zituen eta Udarregi ikastolaren hastapenak gertutik ezagutu zituen. Duela 26 urtetik hona Udarregi ikastolako irakaslea da.



Zer dela eta etorri zinen 13 urterekin Usurbila?

Gu Baltanas-en, Palentzian, bizi ginen. Garai hartan gure herriko eta inguruko herrietako jende dexente Usurbilen, Ingemarren hasi zen lanean. Dirudienez lantegi horretako arduradun bat inguru hartako batekin ezkondua zegoen eta haren bidez hasi zen jendea Ingemarren lanean, eta nire aita ere bai.

Hasieran Txokoalden bizi zineten ezta?

Bai, Erroizpe elkarte dagoen etxe horretan. Garai hartan Usurbilen etxebizitza gutxi zeuden eta kanpotik zetorren jendea Lasarten edo Oretara joaten zen bizitzera. Gu, ordea, Txokoaldera etorri ginen.

Gogorra egin al zitzaizun Palentziazatik Txokoalderako aldaketa?

Bai, oso gogorra. Hiri antzeko herri batetik nekazal auzo txiki baterako aldaketa haundia izan zen. Jaioterrian umeak elkartu eta askatasun osoz ibiltzen ginen. Hona etorri ginenean, ordea, inor ez nuen ezagutzen eta gurasoekin ibiltzen nintzen. Gogoratzen naiz hauekin Donostiara joaten nintzela paseatzera. Hala ere, Txokoalden oso ondo hartu gintuzten, txokoaldetarrak sentitzen ginen.

Eta ikastera nora joaten zinen?

Donostiako Jesuitinas ikastetxera. Han ere bakkari sentitzen nintzen. Denak medikuen, abokatu eta enpresarien alabak ziren eta ni, berriz, etorri berria nintzen langile baten alaba. Hala ere, segituan egin nituen lagunak.

Hasieran ez omen zinen usurbildar sentitzen.

Nola ba, ia Usurbila ez ginen joaten eta. Zarautzen eta Lasarten ibiltzen ginen gehienbat. Lasarten, adibidez, garai hartan izugarrizko giroa sortzen zen. Hori bai inguruko jaietara joaten ginen eta arin-arin eta fandangoak dantzatzen euskaraz hitz egiten baino lehenago ikasi nuen.

Eta Sanestebanetara?

Noski baietz. San Estebango hermita aurrean egiten zen erromeria. Hori bai, garai hartan hel-

duta dantza egitea debekatua zegoen. Behin jaiak bertan behera utzi zituzten eta Zumeta aurrean jotzen jarraitu zuten trikitilariak. Uste dut Laja zela trikitilari hura.

Eta noiz ikasi zenuen euskaraz hitz egiten?

Udarregi ikastolan irakasle modura lanean hasi nintzenean. Baina ez ikastera behartu nindutela. Izan ere, garai haietan erdara entzuten zen kalean, umeek ere erdaraz hitz egin eta idazten zuten. Hasierako ikasleen idazlanak ulertzeko euskara ikasi beharra neukala konturatu nintzen. Ordu arte euskal giroan bizi nintzen, euskal ohitura guztiak neregاناتuta nituen, baina ordura arte euskara ikasteko beharrik ez nuen izan.

Eta nola ikasi zenuen?

Bederatzi urte eman nituen horretan. Kalean euskaraz gutxi hitz egiten zenez garai hartan zaila zen euskaraz ikastera. Udaran Lazkao edo Alkizara joaten nintzen eta oso ondo pasatzen nuen gainera.

Udarregi ikastolaren sorreran ere parte hartu zenuen ezta?

Bai. Garai hartan Felix Aizpurua, Joxe Antonio Altuna, Xabier Pikabea eta beste hainbat herri-tarrekin batera Udarregi patronatuan sartuta ibili nintzen burubelarri. Oso lan polita izan zen, herriak sortu zuen ikastola, nire herritarrak ziren... oso garai polita izan zen. Gero irakasle izateko deitu zidaten 1975ean eta ordutik hona hor nabil.

Umeekin ikusi izan zaitugu ikastolan.

Hala ibiltzen naiz eta. 10 urtekoekin hasi nintzen eta gero betik 3. eta 4. mailakoak eduki izan ditut, lehendabizi erdaldunak eta gero euskaldunak.

Zure ikasle izandakoak ezagutzen al dituzu? eta beraiek zu?

Bai, noski. Normalki agurtzen naute, eta nik ere bai beraiek. Duela gutxi Nafarroara elurretara joan eta ama batek "zu Maria Jesus del Pico zara" esanaz agurtu ninduen. Nik ere ezagutu nuen. Nire ikasle izandako Yolanda zen.

SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Okerrak zuzenduz

Badirudi nere azken kronikak auzotar batzuen artean haserreak piztu dituela. Hori dela eta, aste honetan nere txanda ez izan arren, kronika berriz idatzi nahi izan dut aurreko alean idatzi nituen bi gauza-txo argitu asmoz.

Batetik, Tandy janari-dendan jada barazkiak, frutak eta haragia ez zela saltzen aipatu nuen. Hanka sartu nuen, izan ere, Tandy dendako langileak deitu baitzigun Noaualra informazio hau gezurtatzen.

Egiazkoa ez den informazio bat kaleratu nuen eta nere barkamena helerazi nahi diet bertako jabeek. Izan ere, kroni-

ka idazterako orduan eskutan nuen inforazioarekin soilik jokatu bainuen, zuei deitu gabe hori baieztatu ahal izateko. Ez nuen asmo txarrez egin, baina maiz kazetariok egin ohi dugun bezala, informazio errezarekin jokatu nuen, informazio iturriak kontrastatu gabe. Kazetaritzaren funtsezko printzipio bat urratu dut, beraz.

Nere hitzek zuen lanean eraginik ez izatea espero dut, nahikoa zama baita jada komertzio bat ixtea, gainera, nahi gabe eta inolako asmo txarrik gabe, kaltea sortzeko. Beraz, hor nere barkamena.

Bestetik ere, San Esteban

tabernaren inguruan dauden zurrumurru guztiak ere argitu nahiko nituzke. Izan ere, auzoan taberna itxiko zenaren kontuak zabaldu baziren ere, ez dela itxiko esan didate bertako jabeek. Beraz, hauei ere barkamenak zurrumurruetan oinarritutako berri bat zabaltzeagatik.

Ikusiko zenuten bezala, lezio ona jaso dut oraingoan. Kazetaritzaren munduan lehen urratsak ematen hasi naiz, eta jada lehen hanka-sartzeak egin ditut. Orain arte teoria gisa ikasi dudana, hots, kazetaritza printzipioen txapa guztia, praktikan jartzeko eta zuzentasunez jokatzeako ordua iritsi zait.

URDAIAGA

Eider Jauregi



Pinudiak ez mozteko agindua

Opor aurreko ataletan aipatu izan dut inguru hauetako pinudiak mozten hasiak zirela, baina jakinarazi nahi dizuet azken bolada honetan geldirik daudela.

Nik hasera batean, oporrak zituztelako gelditu zirela uste nuen, baina dirudienez, norbaitek ez mozteko agindua eman die. Gutako inork ez daki zergatik, baina inguru honetan esamesa ugari zabaldu ondoren, badirudi behealdean aurkitzen den enpresa zikintzeko arriskua dagoelako gelditu direla.

Hori dela eta, errepedez behera dagoen pinudi guztia

errepidera ekarri behar duten, honek lana gehituko die. Nik ez dakit nola lan egin behar duten, baina ikusitakoak ikusita ez daukate lan erraza.

Bestalde, badirudi neguan

sartzen hasiak garela, azken egun hauetako eguraldia ikusita eta honekin batera lehen ateratuko pinuen ezpal eta hosto ugari dago errepedean. Honek ibilgailu guz-

tiak irristatzeko arriskua areagotzen du. Beraz, geroz eta kontu handiagoz ibili beharko dugu, ez baita lehen aldiz sustoren bat edo beste hartu dugunik.



KALEZAR

Joseba Pellejero



Udazken betean

Udazkenean sartu garen honetan, berri-emaile gatoz goialde honetatik. Dagoeneko perretxiku biltzaileak otordu ederrak egiten hasiak dira, ehiztariak, aldiz, eskopeta prest dute. Oro har, urtaro honek, naturazaleoi bereziki zer bildu, zer bota, zer ikusi, zer amestu... hamaika gauza egiteko aukera ematen digu.

Udazkenean gauza gehienak lurrera erortzen diren bezala, Kalearren altxa egiten dira. Ugarte atzeko

sindikatu berriak bultzada ederra izan du, laster dira baserritarrak hemen bueltaka. Kalezarko kaxkoan zegoen Arotzanea baserria bota eta konturatzerako altxa dute berria. Ia 100 urte zituen lehen-

goak, ea berriak horrenbeste irauten duen (guk ez dugu ezagutuko noski).

Urte guztiko fruitu eta eginda-ko lanaren ordaina, orain jasotzen da, Gorostitxo eztiolara etorri besterik ez duzue, erleek eginda-ko bilketa gozoa, orain hari baitira ontziratzen. Gipuzkoa mailan lan egiten duen elkarte bat da, inguruko herritako erlezainak etortzen direlarik eta denen artean 8 mila kilo pasatxo ateratzea espero dute. Izango dugu gozotik behintzat, aio!



ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Bazterrak, bistakoak eta izkutuak

Aurreko batean arratsalde parteko ordu lasaiak frontoi inguruko petrilean emateko aukera izan nuen. Izan ere, uda amaitu den honetan, eta guztiok buru-belarri laneko dinamikan sartu nahian gabiltzanez, edozein huskerik lanpetuta gaudenaren itolarria eragiten digu eta kasik ahaztu egiten zaizkigu lasai egotearen abantailak eta baita lasai egoteko sistemak ere. Hala, petrila- ren inguruko gogoetan murgil- du nintzen tonto-tonto, alboko- en elkarrizketatik urrun. Herri- arren formak herritarren arteko harremanak nabarmen baldintzatzen dituela ondorioz- tatu nuen. Pentsa garai bateko txirristan gora eta behera beti- rako zenbat laguntasun sortu diren, edota "harrian" eserita

zenbat adiskide haserretu, edo zenbat ezpaina elkartu lehenengo.

Frontoiko petrilak hitz egingo balu... zenbat txorakeri, zenbat elkarrizketa izkutu eta zenbat gogoeta mamitsu. Ederra da, eguraldiak utzi artean, taberna zokora sartu beharrik ez izatea gustura hizketan aritzeko. Haurrak ginenean ere ez genuen askoz gehiago behar, sosak izanez gero litxarkeriak erosi eta bestela, esku hutsik, orduak eta orduak ematen genituen txirris- ta inguruan hizketan, korrikan, jolasean.

Batzuetan, Donostiatik buel- tan, herriko gazte asko ikusten ditut Urbil parean autobusaren zain. Taberna izkineko guraso- en kontuetan ere belarria lotsa-

gabe sartu izan dut eta batzuk gustura omen daude, Urbilen bueltaka ez omen dute arrisku- rik seme-alabek. Tristeia, bene- tan, kamaraz jositako gune batean gaztetxoek halako askatasuna sentitzea eta gura- sorik gabeko arratsalde epelak aire egokitudun txoko batean pasatzea. Garaiak aldatu egi- ten omen dira. Hala ere, nik oraindik nahiago petrila edo harria. Badakit badaudela petrilean egin ezin diren gau- zak, herri txikia baita gurea eta amak ikusten ez bazaitu ere, etxera iristerako jakingo du zer- tan ibili zaren. Baina guk, Urbil oraindik ez zegoenean, bila- tzen genituen gaiztakerietara- ko txokoak eta ziur orain ere badaudela bazter izkutuak, bilatu egin behar.

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Txikitako estropadak gogoan

Iraileko Donostiako estropadek txikitako estropada egunak ekarri dizkidate gogorra. Garai hartan auzoan arraun giroa orain baino nabariagoa zela esango nuke.

Agian zerikusia izango zuen gure aldamenean bizi zen Galardiko Jokin Manterola eta, ni oroitzen ez banaiz ere, Jose Luis Segurola "Naskaz" aginagatarrak Orion arraunean egiten zutela. Ondorioz, gehienok Orioko joera edukitzea ez zen harritzekoa.

Haurra nintzenean, estropada egunak zoragarriak izaten ziren. Gauez traineru barruan nengoela amets egiten nuen,

ohetik goiz jeiki eta arin-arin geltokira trena hartzera joaten ginen Donostiara joateko, izan ere, gehiengo honela joaten baiken trena leporaino bete arte.

Oso giro ederra sortzen zen; zaletuak oihuka eta kantuan, leihotik banderak astinduz. Neronek daukadan Donostiako lehen irudia estropadekin lotzen dut. Orduetik arraunerako zaletasuna sartu zitzaigun.

Aurten aurreneko igandean hospitalean egotea suertatu zitzaidan eta telebistaz ikusi behar izan nituen.

Bigarren igandean, berriz, Donostiara joan nintzen, Iñaki

Errasti aginagatarra, Orion arraunean egiten duenak, gure etxe ondoan egunero ikusten duguna, (Berriolan egiten baitu lan) bere aurreneko Kontxa irabazten ikusteko esperantzaz.

Egun euritsua tokatu zitzaigun. Goitik behera busti ginen, baina hau ez zen okerrera izan. Okerragoa izan baitzen nere paretik, paseo berrian, Orio aurretik zihola ikusi eta azken metrotan estropada gal-tzen ikustea.

Mutututa geratu nintzen, ia-ia hospitalera bueltatu beharrean. Sinestezina! Ez zait berehala ahaztuko han ikusitakoa, alajaina! Hurrengo urtea etorriko da.

KALEBERRI

Ines Kamino



Denak zozketaren zain

Artzabalgo babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izateko eskaerak aurkezteko epea ireki zenetik mugimendu haundia dabil udaletxe alde horretan. Udalak gela bat jarri du eskaerak egin eta galderak egiteko. Izan ere, hainbeste paper eta eskakizunekin aztoratu egiten baita jendea. Hemendik aurrera hasiko dira tripakominak, etxebizitza horien zozketa gerturatzen joango den heinean hain zuzen ere.

Bestalde, urriaren 12 eta 13an Usurbilgo Gazte Asanbladakoek akanpada-itxialdia egingo dute idi-deman. Lokal finko bat

eskatzen dute herriko gazteek, orain Udarregi zaharrean baitaude. Egun horietarako koadrila apustuak, eztabaidak, tailerrak, hitzaldiak etab. izango dira.

Hurrengo egunerako dena txukun-txukun utzi beharko dute piper eguna izango baita herriko frontoian laz ospatu zen lehen aldiz egun eta eta aurten jarraipena eman nahi izan diote. Laister hasiko dira Sagar-do Egunean bezala herriko sarreretan panelak jartzen. Ea ba zein piper ekoiztaileren piperrak izaten diren aurten onenak.



AGINAGA

Oskar Santamaria



San Praixku 2001

Lehenengo hego-haizearekin eta babarrunekin batera San Praixkuak iritsi zaizkigu. Aurten astebukaera bat izango den arren, hilaren 13an, larunbata, Xomorro atxilotu zutela 10 urte bete direnez, omenaldia izango dugu.

Lehenik, ordean, festetan aginatarrei jai batzordearen izenean gonbidapena luzatzen dizuegu ospatuko diren ekintza ezberdinetan parte hartzera edo, gutxienez, plaza ingurura azaltzera. Bertan giro onaz gain, hainbat ekitaldi izango dituzue; besteak beste, eskulanean erakusketa apaiz-etxean,

herri-poteoa, toka, sardin jana, musa, soka-tira, xexenkak, musika, zezen mekanikoa eta bertsolariak. Hauetaz guztietaz gozatzeko aukera izango duzue.

Nola ez! Aurten ere oilasko-biltzaileetan aginatar guztion partaidetza eskatzen dizuegu.



Batez ere, ez hain gazteei, beti gazteak bakarrik ateratzen baikara!!

Xomorroaren omenaldiari dagokionez, goizean goiztik mural pintaketarako nahiz gero egingo diren ekintza ezberdinetara gonbidapena luzatzen dizuegu; triki-poteoa bertsolariekin, herri jokoak, herri afaria, dantzaldia...

Ikusten duzuen moduan, gazteok denentzako festak antolatzen saiatu gara. Beraz, Agiñako zirrikitu ezberdinetan zaudeten guztiok (ume, gazte eta helduak) plazan ikusi nahi zaituztegu hilaren 3, 3, 5, 6, 7 eta 13an. GORA SAN PRAIXKU!!

ZUBIETA

Xabier Arregi



Kale izenak

Irailaren 19ko buletinean argitaratu da Zubietako herri-gunea urbanizatzeko lehiaketa. Horren arabera, hila-beteko epearen bueltan erabakiko da zein kontratistak egingo dituen urbanizazio-obra. Hortaz, obrei ekiteko tramiteak azken fasean daude.

Zubieta kaletartu egingo zaigu. Orain ez bezala, etxe arteko kaleak ezagutuko ditugu obra horiek egindakoan. Eta kale horiei izena jarriko zaie.

Hain zuzen ere, kale-izenak direla eta, proposamen bat heldu zaigu Donostiako udaltik. Lau izen berri proposatzen dira. Hara zein diren:

Alamandegiko bordaren azpialdetik Araundi baserrira doan kalea: ARAUNDI KALEA.

Barazar eta Kale baserrien artean Kaxka aldera doan kalea: BARAZAR KALEA.

Barazarren gainaldetik eta Lanbide ikastetxearen azpial-



detik Kaxka aldera doana: IRI-GOEN KALEA.

Elizaren gainaldean egingo den plaza: HERRIKO PLAZA.

Horiexek dira proposamenak. Herri-Batzarraren oniritzia eskatu dute izen horiek jartzeko, eta Herri-Batzarrak herritarren iritzia jaso nahi du ezer erabaki aurretik. Gainera, aukera hau baliatu nahi dugu lehendik dauden izenak ere egokitzeko. Beraz, zuen iritzia gustura jaso-ko genuke urriaren 10a baino lehen. Horretarako nahikoa da batzarkideren bati esatea, edota telefonoz edo buzoiaren bidez zuen proposamenak helaraztea.

Zenbait herriko talde lekuz aldatu dira, beste batzuk lokal finkoa eskatzen dute

Datorren urriaren 12 eta 13rako lokal finko bat eskatuz akanpada-entzerrona antolatu du Usurbilgo Gazte Asanbladak. Kalezarren eta Irazu kalean Udarregi ikastolak erabili izan zituen eraikinetarako udalak dituen egitasmo berrien ondorioz, (Kultur Etxea, Haur Eskola, Eguneko Zentroa) zenbait herriko taldek beren egoitza aldatu behar izan dute; beste batzuk, berriz, musika taldeak, adibidez, lokalik gabe gelditu dira.

Musika, euskara, jaiak, gazteak, keramika, antzerkia... edozer zerbitzu eskaintzeko leku egoki bat ezinbestekoa da. Bakoitzak bere lokala erostea ia ezinezkoa denez, udalak utzitako lokalak ezinbestekoak izaten dira, bai Usubilen eta bai beste herrietan ere. Gaur egun, herriko 25 talde inguru herriarenak diren egoitza horietan sakabanatuta daude.

Azken hilabete hauetan, ordea, lokal aldaketan soinua zabalduta da herrian. Kalezarko Udarregi zaharrean Haur Eskola jartzeak, eta kultur etxe berria eraikitzen hasteko gero eta denbora gutxiago falta dela jakiteak mugimendua sortu du herriko taldeen artean. Etumeta euskaltegia eta Bota Punttuba bertso eskola Irazu kaleko Udarregi zaharretik Txaramuntora pasako dira epe laburrean. Eraikuntza berean biltzen dira Euskal txokoak-eko begiraleak, eta hauentzat ere lokalen bat egokitu beharko dutelakoan dago udaleko kultura zinegotzia.

Musika taldeak eta Usurbilgo Gazte Asanbladakoak, berriz, ez daude gustora. Ekainean



Bustinzulo keramika taldeak urte asko daramatza Zumarteko eraikuntzan

Kalezarko eraikuntzako lokalak utzi behar izan zituzten eta Usurbilgo Gazte Asanbladako- ei Irazu kaleko Udarregi zaharrean Mihixe pintura eskolak erabiltzen zuen gela utzi bazieten ere, musika taldeak entsaiatzeko lekurik gabe gelditu dira.

UGAkoek lokal finko bat nahi dute

Hala ere, Usurbilgo Gazte Asanblako kideek esan digutenez, laster utzi beharko dute Udarregi zaharreko lokala ere. *"Hasiera batean azaroaren amaierarako kalean ikusten ginen, baina azkenean eraikuntza lanak atzeratu egin direla eta martxora arte egon gaitzkeela esan digute udal ordezkariak. Baina orduan zer gertatuko da? Behin behineko zein lokal emango digute? Lau urtetan dagoeneko lau lokal pasa ditugu eta hemezortzi gazte baino gehiago mugitzen dituen talde batek lokal finko baten beharra duela uste dugu. Hori aldarrikatzeko antolatu dugu akanpada-entzerrona".*

Leku aldaketa hauek gazteek herriaren alde egin dezaketena oztopatu egiten duela uste dute. *"Askotan ezer ez dugula antolatzen esaten digute, herriaren alde ez dugula ezer egiten, baina nola nahi dute zerbait txukuna antolatzea lokal finkorik gabe bagaude? Lanean hasteko gogorik ez izateaz gain, gazte gutxiago etortzen direla ere ohartu gara".*

Potxonea gazteleku bihurtzeko eskatu zioten duela urte batzuk herriko gazteek udalari. Honek etxe hau erosi zuen eta orain berrizatu ahal izateko proiektua egiten ari dira. Niko Bengoetxea kultura zinegotziaren arabera herriko gazteak Potxonean bildu ahal izango dira berriztatze lanak amaitzen direnean. *"Beheko solairuan gazteentzat 60 metro karratuko areto bat jartzeko asmoa dugu. Lehenengo solairuko gela bat ere beraientzat izango da eta beste bi gelek zergatik erabaki gabe dago oraindik. Goian, berriz, gela ireki bat egongo da".*

UGAkoek Potxonea beraientzat oso leku egokia dela uste

dute. Hor lekutxo bat izango dutela ere badakite, "baina noiz berritu behar dute?". Hori xe da beraien galdera eta kezka. "Hasieran aurten berrituko zutela esan ziguten, gero bi urtera... baina honela ezin dugu ezer egin".

Herriari begira zerbait egin beharra

Baina zer irizpide erabiltzen du udalak herriko talde bati lokal bat uzteko orduan? Nikoren esanetan lokal bat uzteko-tan herritarrak izatea ezinbestekoa da eta hauek herriari zerbait eskaini behar diote. "Lokalen bat nahi duten taldeek herriari begira ekintza batzuk bultzatu behar dituztela uste dugu. Herriko talde batzuei zerbizu bat eskaintzen dutelako leku bat uzten zaie, beste batzuei, berriz, kultur jarduera bat bultzatzen dutelako".

Kultur jarduerak kolokan egoitea lokal falta baino kezgarriagoa dela uste du kultura zinegotziak. "Lokalak badaude. Kalezarko Udarregi zaharrean gela batzuk libre daude eta Kale Nagusian Pake Epaitegiaren ondoko lokala ere ez da erabiltzen. Hala ere azterketa oroko bat egitea beharrezkoa da. Talde bakoitzak bere alde-tik egiten du lana eta irizpideak argiago edukitzea komenigarria izango litzateke. Kultur etxe berria egin eta Potxonea berriztatzen dutenean azpiegitura egokiagoak izango direnez kultur jarduerak sendotu daitezkeela uste dut."

Josu Aranberri

HERRIKO TALDEAK	KOKALEKUA
Txistulari taldea	Zumarte
Usurbil K.E.	Atxegalde
Usurbil F.T.	Atxegalde
Odol emalleen elkarte	Mediku etxea
Etumeta euskaltegia	Txaramunto
Sagardo Egunaren Lagunak	Bordaberri
Bustinzulo	Zumarte
Dantza taldea	Etxealdia
Hika antzerki taldea	Kalezarko Udarregi zah.
Bota Punttuba	Txaramunto
Trikitolari eskola	Zumarte
Kalezarko jai batzordea	Kalezarko Udarregi zah.
Zumarte musika eskola	Zumarte
DYA	Mediku etxea/Etxealdia
Usurbilgo Gazte Asanblada	Kaleberriko Udarregi zah.
Elkarri	Bordaberri
Akerra gaztetxea	Txokoalde
Noaia! Kultur Elkarte	Bordaberri
Hitz Jasoz	Bordaberri
Euskal Txokoak	Kaleberriko Udarregi zah.
EKT	Santuenea
Andatza Kirol Elkarte	Mediku etxea



Udalarena den Bake epaitegiaren ondoko lokala hutsik dago



Beheko kalea. 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK

GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Lasarte Oriako udalak Usurbilgo udalaren aurkako auzi errekurtsoa jarri du

SAFEN Michelin enpresak Usurbil eta Lasarteri ordaintzen dizkien ekonomi ihardueraren zerga banaketarekin ados ez dagoela eta, Lasarte-Oriako udalak Usurbilgo udalaren aurka auzi errekurtsoa jarri du Donostiako auzitegian. Orain arte Foru Aldundiak kobratzen zuen zerga hau gero bi udalen artean banatzeko. Iaz, ordea, Usurbilgo udalak egin zuen banaketa aurrez ezarritako portzentaia errespetatuz.

SAFEN Michelin enpresa Lasarten dagoela uste du jende askok, baina hori ez da horrela. Enpresa honek Usurbil eta Lasarte Oriako udalerrietan kokatuta dituen lokaletan burutzen du bere iharduera. Zati bat Lasarte Orian dago, %42, eta beste zatia Usurbilen, %58. Horregatik, enpresa honen ekonomi ihardueren gaineko zerga bi udalerrien artean banatzerako orduan portzentaia horiek errespetatzea erabaki zuen Foru Aldundiak.

Orain arte Foru Aldundiak banatzen zuen guztia

2000. urte arte erakunde honek kobratzen zuen zerga hori, gero bi udalen artean banatuaz. Hala ere, Foru Dekretu batean zerga hori zatirik haundiena duen udalerriari ordaindu eta honek banatzea erabaki zen: %42 Lasarte Oriari eta %58 Usurbili. Honela, iaz, Usurbilgo udalak kobratu zuen lehen aldiz eta banatu ere bai.

Foru Aldundiak lantegiek udalei ordaindu beharreko



gutxieneko kuota bat ezarria du Gipuzkoa osorako eta banaketa kuota horren arabera egin behar dela dio indarrean dagoen araudiak. Kuota honen arabera Michelinak 9.722.050 pezeta ordaindu zizkion iaz Usurbilgo udalerriari eta honek 4.083.261 peze-ta eman zizkion Lasarte Oriari (%42).

Hala ere, Usurbilgo udalak kuotaren bidez zegozkion 5.638.789 pezeta baino gehiago kobratu zituen iaz. Kuota osoari Usurbilgo udalerriko iharduera ekonomikoetarako jarria duen %1,5eko koefizientea, hau da, 1,5 milioi pezeta eta herriko industrialdeetan dauden enpresei kobratzen zaien kokapen indizea, 5.500.000 pezeta, gehitu zizkion.

Lasarte Oriako udala banaketarekin ados ez

Lasarte Oriako udala, ordea, ez zegoen ados banaketa horrekin. Banaketa Udalaren Gutxieneko Kuotetan oinarritu beharrean beste bi indizeak kontuan hartu eta SAFEN-

Michelinek Usurbilgo udalari eman zizkion 17 milioi pezetaren %42 ematea eskatzen zuen. Horretarako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zion herriko udalari eta honek hau atzera bota ondoren auzi errekurtsoa sartu du Donostiako auzitegian.

Araudiaren arabera banaketa ondo egina dago

Xabier Olano udaleko diruzainaren arabera orain arte Foru Aldundiak egin duenaren berdina egin du udalak. "Gure ustez indarrean dagoen araudiaren arabera arrazoi guztia daukagu. Lasarte Oriako udalak jarri duen errekurtsok azpian badu bere logika, baina ekonomi ihardueren zergaren banaketa egiterakoan gu araudian oinarritu gara". Dirudenez beraiek horretaz ere jabetu dira eta Usurbilgo udalaren aurkako errekurtsoa jartzeaz gain Foru Araua aldatzeko proposamena aurkeztu du Batzar Nagusi-etan.

Josu Aranberri

Kultura eta hizkuntz normalizaziorako teknikariaren lehiaketa gelditu nahi du EAJk

Udaleko EAJ-PNV alderdiko zinegotzi taldeak kultura eta hizkuntz normalizaziorako teknikariaren lanposturako deialdia bertan behera uzteko eskaera egin dio udalbatzari. Lanpostu hau lortzeko behin betiko hautagaien zerrenda pasa den irailaren 20an onartu zen eta 49 hautagai aurkeztu dira.

Lanpostu honek zeresan ugari eman du hilabeteetan zehar. Gaztedia, kultura eta hizkuntz normalizaziorako teknikariaren lanpostua sortzeko egitasmoa aurkeztu zenean, lan hori guztia pertsona baten esku uzteko erabakiaren inguruan ikamika ugari izan ziren, baitzuk bi lanpostu sortu behar zirela esaten baitzuten.

Orain, berriz, lanpostua betetzeko deialdia egin eta hautagaien zerrenda onartu denean, EAJ-PNVk deialdi hori atzera botatzeko eskaera egin du. Hauen esanetan lehiaketako oinarriak egiterakoan alkatetzak legez kanpo oinarri bat aldatu omen zuen. Bestalde, eskaeren aurkezpen epea ez dela errespetatu argudiatu dute. Legezko epean 17 omen ziren hautagaiak, orain, berriz, 49 omen dira.

Guzti honegatik zenbait eskaera egin dizkiote udalbatzari:

- 1- Lehiaketako oinarri bat aldatu zuen alkatetza dekretua bertan behera uztea.
- 2- Lehiaketako oinarriak udalbatzak berriz onartzea.
- 3- Oinarriak onartu ondoren deialdi berri bat egitea
- 4- Deialdia bertan behera utzi ala ez erabaki bitartean hautagaiek egin beharreko ariketak gelditzea.



Oparitutako lanpostuak?

Behinola, bazen aspalditik udala gobernatuz zeto- rren talde politiko baten buruzagi taldexka bat. Hauek, zerbitzu berri bat eman nahi izan diote herriari Kultura eta normalizazio linguistikarako lanpostu bat atereaz.

Jakina, lanpostu hau lehiaketaren bidez atera behar dela, baina, zertarako lehiaketa hau legez egin lanpostu hau beraietakoren batentzako izan behar badu? Honetarako, legearen interpretazio eta prozedurak beraien erara erabili, nola ez legetik urrun, eta ados ez dagoenari Epaitegi Espainoletara jotzera behartu dituzte.

Besterik gabe, beraiena egiteagatik egin dute lanpostu horretarako deialdia; baina duela 18 urtetik hona izan da guztiok ondotxo dakigun langile bat, lanpostu hori ederki asko eraman duena, eta gure iritziz ez zegoen honetarako premiarik. Zer egingo diogu ba! Baina hauxe da harrigarria: Hasiera batean, lehiaketaldiak izendatutako epean, 17 pertsonak bakarrik izan zuten lanpostu-deialdi honen berri, eta beraien lagun edo ezagunak sartzeagatik izen emateko epea luzatu zuten, honetara beste 36 izena eman zutelarik. Azkenean, 49 izan dira onartuak.

49 pertsona hauen artetik ausartuko ote dira udal zinego-

tzi horiek lanpostu hori bere laguntxoren bati ematen? Ausartuko ote, esan ohi den bezala "behatzez" ematen, epaitegietara joz gal dezakete-lakin? Zer dela eta dabilta jende onarekin jostatzen? Beren eskubideei uko egin diezaieten zai, beharbada? Hona hemen segidan, hitzez hitz, garbitasun lanposturako lehiaketara aurkeztu zen emakume baten testigantza.

"Epez kanpo idazten dizuet, egun horietan lantegi batean ordezkapena egiten hasi nintzelako eta beste arazo batzuekin lotuta indarrik gabe aurkitzen nintzelako; baina zoritxarrez, frankismoaren epaimahaien jarrera eta boterearen soberakeria adierazi didazue; sakonean eta benetan sinesgabea egiten zait, onartu behar dudan arren.

Nahi izan banu, errekurritu ahal nuen bere egunean procedimiento administrativo batzuk (42,43,107,114) kontuan hartuz, baina nazka sentitu nuen, eta indar ezari lotuta, hau da nire erantzuna: zuei jakinarraztea neure nahigabea eta hurrengorako zuzenduko eta gaindituko duzuenaren itxaropena. Besterik gabe agur bat".

Irakurle adeitsuak konturatu ote dira zein herri eta zinegotziz aritu garen istorio honekin?

Usurbilgo EAJ-PNV

Herriko anbulategian 24 urte pasa ondoren jubilatuta da Francisco Trassorras

Azken 24 urteetan ez bezala Francisco Trassorras sendagilea ez dago herriko anbulategian. 1977. urteko azaroaren 15etik bera izan da herriko mediku titularra, baina abuztuan jubilatuta zenez Jon Santa Kruz-ek hartu du behin-behingo bere lekua. Hala ere, datozen hila-beteetan erabakiko du Osakidetza nork hartuko duen "Patxik" utzitako lekua.

1969an etorri zen Gipuzkoara Aragoiko Canfranc herrian bizi zen mediku hau. Orioko anbulategian 5 urte eta Zarauzkoan 3 urte egon ondoren 1977ko azaroaren 15etik herriko sendagile titularra izan da. "Medikuntza ikasketak egin ondoren Gipuzkoara etorri behar izan nuen. Hemen ezagutu nuen nire emaztea izango zena eta hasieran Orio eta Zarautzen bizi ondoren Donostian gelditu naiz bizitzen".

Oposizio bidez lortu zuen herriko anbulategiko sendagile izatea eta 24 urte hauetan jende asko ezagutu du.

"*Hasiera batean pediatria lanak ere egiten nituen eta orduan umeak zirenak urteetan aurrera nola egin duten ikusi ahal izan dut. Usurbilen egon naizen urte hauetan jende asko ezagutu dut, eta hemengo jendea oso ona dela esan dezaket. Oso ondo moldatu gara urte hauetan*".



Askotan entzun izan dugu lan gutxi egiten zuela, beste sendagileak "gaixo" asko hartzen zituela Trassorras lasai-lasai egoten zen bitartean, baina hori zergatik gertatzen zen argi utzi nahi du berak: "Ni anbulatorio honetako mediku titularra nintzen eta horregatik ordutegi ezberdina nuen. Beste sendagilea goizeko 8.00etatik arratsaldeko 15.00etara egoten zen, baina ni, Osakidetza-ko oinarriko unitatean sartu gabe nengoen, 11.00etatik bukatu arte egoten nintzen".

Medikuntza arloan herriko anbulatorioan aldaketa haundirik ez dela izan esan zigun. "Anbulategi zaharretik berrirako aldaketa aurrerapauso haundia izan zen, eraikuntza zaharra oso gaizki baitzegoen. Hala ere, diagnosia emateko baliabideak, analitikak etab. hobetu badira ere orokorrean gaixotasunak eta patologia berdintsuak izaten dira".

Eguneko zentroa datorren urterako egitasmoa



Kalezarko Udarregi zaharrean (Haur Eskolari itsatsita dagoen eraikinean) zaharrentzat Eguneko Zentroa egiteko asmoa zuen udalak urtea bukatu baino lehen. 2001. urteko aurrekontuan horretarako diru kopuru bat aurreikusita zegoen, baina azkenean datorren urteko udaberriarako egitea erabaki dute. Gai honen inguruan herri txikiek (Usurbil barne) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zenbait tirabira izan dituzte eta guzti honen ondorioz egitasmo hau datorren urterako utzi behar izan du udalak.

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, giro bikaina egon da Santueneko festetan

Aspertzeko une gutxi egon da aurtengo festetan. Eguraldiak asko lagundu ez arren, giro bikaina nagusitu da asteburu osoan zehar. Ibai-Ondo elkar-

te aurrean antolatu dira ia ekitaldi guztiak, eta denetan parte-hartze nahiko handia egon dela esan daiteke. Mus Txapelketan, esaterako, 34 bikotek eman zuten izena eta

irabazleak Andoni Arruti eta Jon izan ziren. Gainera, sardin dastaketara eta txokolote pixkat hartze-
ra ere jende dexente hurbildu zen.

Larunbat gauen ezohikoa den irudia ikusi zitekeen

Ibai-Ondo elkartearen aurrean. Izan ere, bertan jarri baitzuten tablatua eta goizaldera arte disjokei bat egon zen musika jartzen.

Bestalde, igande goizean ere, iazko bideari eutsirik, eskubaloitxoak jokatu ziren. Baina, aurtengoak, bazuen berezitasunik. Izan ere, nesken arteko partida jokatu baitzen, nahiz eta eskubaloitxo talde bat nahiko berezia izan. Neskak ez ziren behar adina bildu partidarako, eta mutil batzuk neskez jantzi baitziren.

Festei txarangaren doinuarekin eman zitzaion amaiera.



Abian da jada merkataritza euskalduntzeko 2. fasea. Irailaren 17an udaleko pleno aretoan bertara hurbildu ziren merkatariei egin zitzaizen egitasmoaren eta kartelaren aurkezpena. Kanpainaren arduraduna den Nerea Erauntzetamurgil eta euskara zinegotzia den Koldo Lizasok gidatu zuten bilera. Tamalez, parte-hartzea ez zen uste bezain oparoa izan, soilik zortzi komertzianta baino ez zelako azaldu. Hala ere, orokorrean positibotzat jo zuten kanpaina.



Ikastola eta eskola gehienek aurtengo ikasturteari hasiera eman badiote ere, Santueneako eskola txikiak ez du horretarako aukerarik izan. Azken urteetan gutxieneko ikasle kopurura iristeko arazoak izan ondoren, aurtun ume gutxi matrikulatu ziren eskola honetan eta Hezkuntza Sailak Santueneako eskola txikia ixtea erabaki zuen. Aginaga eta Zubietako eskola txikietan arazo berdina izaten badute ere normaltasun osoz ekin zioten aurtengo ikasturteari.

Kalkos kopisteria

- ✎ Fotokopiak
- ✎ Fotokopiak koloretan
- ✎ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ✎ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ✎ Planoen kopiak (AO arte)
- ✎ Ordenadoreko lanak
- ✎ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ✎ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Enrike Huizi eta Mintegik irabazi dute senior mailako Usurbilgo Pelota Txapelketa

Herriko XIX. Pelota Txapelketan afizionatu mailan garaile izatea eta finaleko jokalaririk onenaren saria ematea ez da txantxetako. Horixe lortu zuen Enrike Huizik pasa den irailaren 21ean. Mintegi amezketarra lagun zuela 22-13 irabazi zien Erroizenea eta Elizondok osatutako bikoteari. Jubenil mailan, berriz, Baztango Arrastoa eta Eskuderok lortu zuten txapela.

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere jende dexente bildu zen herriko frontoian XIX. Pelota Txapelketako azken partidatan. Jubenil mailan gaur egun punta-puntan dabiltzan bi bikote izan ziren aurrez aurre: Añorga Kirol Elkarteko Zabala hernaniarra eta Oteiza zarauztarra, eta Baztango Arrastoa eta Eskudero. Partida erdi arte lehia estua izan bazen ere azkenean nafarrek 22-15 irabazi zuten.



Hala ere, Oteizak jaso zuen finaleko jokalaririk onenaren saria.

Senior mailan, berriz, Enrike Huizi usurbildarra eta Mintegi amezketarra Erroizenea hernaniarra eta Elizondo iruindarra baino gehiago izan ziren txapelketako azken partidatan. 22-13 nagusitu ziren eta Enrikek jaso zuen partidako jokalaririk onenaren saria.



Amador Granados hirugarren ezinduen Europako txirrindulari txapelketan

Irailaren 7tik 15a bitartean ezinduen Europako txirrindulari txapelketa jokatu da Zurich eta Neuchatel-en. Bertan izan da Amador Granados usurbildarra eta LC2 mailan brontzezko domina eskuratu zuen jarraipeneko proban.

Errepideko proban, berriz, zazpigarren postuarekin kon-

formatu behar izan zuen. 70,3 kilometroko ibilbideari aurre egin behar izan zioten proba honetako partaideek eta irabazlearengandik 34 segundura iritsi zen helmugara usurbildarra.

Azkenik, taldeka, bosgarren postua eskuratu zuten Amador eta bere kideek.

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Zendoia enea
Taberna



Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

HAUR JANTZIAK
Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

Indarrik gabe zegoen sai arrea harrapatu ezinik



Pasa den irailaren 15ean Atxegalde parean N-634 errepide ondoan azaldu zen putre kume hau. Indarrik gabe bazegoen ere ihes egitea lortu zuten eta astelehena arte ez zuten bere berririk izan. Kaparoz baserriaren parean harrapatu zuten Joakin eta Joxe Antonio Jaca anaiei artean.

Inguru honetan honelako hegazti bat ikustea ez da ohikoa, baina sai erre gazte hau Usurbilen agertu zen pasa den irailaren 15ean. Bi egunez galduta ibili zen han inguruan, baina hirugarren egunean Jaca anaiek Kaparoz baserriaren parean harrapatu zuten. Metro

eta erdiko hegala zituen, baina indarrik gabe zegoenez ezin zuen hegana egin. Horregatik Igeldon dagoen Arrano etxera eraman zuten berehala.

Hegazti babes etxe honetako kide batek esandakoaren arabera sai arrea familiako kume bat da. Urte honetan jaiotakoa omen da, putre kumeek uztaila edo abuztuan alde egiten baitute beraien kabitik. Hala ere, sai hau galdu egingo zelakoan daude. Elikadura falta nabarmena zuen eta ondorioz ezin zuen hegana egin. Dena ondo badoa hamabost egunean berriz ere aske utziko dute Igeldoko Arrano etxekoek.



Piper eguna

Aurtengo piper eguna urriaren 14an izango da. Hasiera batean irailaren 16rako iragarrita bazegoen ere, antolatzeke jende falta zegoela eta urriaren 14ra atzeratu dute II.piper eguna. Egitaraua iazkoaren antzekoa izango da. Alde batetik Usurbilgo piper ekoiztaileek aurkeztutako piperrekin lehiaketa egingo da eta beste aldetik osagai nagusitzat piperra hartuta pintxo dastaketa izango da. Hurrengo alean izango duzue egitarau osoaren berri.

Istripua

Pasa den irailaren 19an 37 urteko azpeitlar bat larriki zauritu zen Troia parean N-634 errepidean lanean ari zela burura hormigoizko oholesi bat erori ondoren. Errepide ondoko hesiekin lanean ri zela gertatu zen ezbeharra. Oholezia gainera erori eta zauriak jasan zituen burura. Horren ondorioz hospitalera eraman behar izan zuten.

Omenaldia

Gure Pakea zaharren egoitzak aurtengo 80 urte bete dituzten edo beteko dituzten kideak omenduko ditu datorren urriaren 7an. Goizeko 11.30etan meza nagusia izango da eta eguerdiko 14.00etan, berriz, bazkaria izango dute Agerialden. Hauexek dira egun horretan omenduko dituzten kideak:

Metodia Serrano De la Cruz
Juan Jose Benito hernandez
Pablo Gorriti Camino
Feliciana Irasuegui Beloki
Cristina Bengoechea Urruzmendi
Joxe Camino Ibargoiien
Pedro Rezola Aristizabal
Concepcion Muguerza Guruceaga
Joxe Azconobieta Yerobi



**Imanol Magariño
Mitxelena**

Eguzkitzaldea

Baiez uste dut. Gidatzeko baime-na duela gutxi atera nuen eta orain arte behintzat ondo moldatu naiz kotxerik gabe. Denbora gehiago pasa behar bada ere lantokira oinez joaten naiz, beraz...



**Nerea Urkia
Mercero**

Kaleberri

Egun bat izanez gero moldatuko nintzateke, baina bestela ez. Nahiz eta distantzia haundirik ez egon lanera joateko kotxea behar dut eta bestela ere askotan erabili izan dut orain arte.



**Amaia Kaperotxipi
Arruti**

Orio

Nik ez daukat ko-txerik, lagunekin ibil-tzen naiz. Oraingoz behintzat ez dut gidatzeko baimenik ateratzeko asmorik, hara eta hona ibiltzeko ondo moldatzen baitnaiz. oriotik Usurbila egunero etortzen naiz eta horretarako askotan autobusa era-biltzen dut.



**Joxe Iparragirre
Amiano**

Kaleberri

Nik ez daukat ez gidatzeko bai-menik ezta kotxerik ere. Trena eta autobusa erabili izan ditut, lagu-nek ere eraman izan naute, baina kotxerik gabe ondo molda-tu izan naiz. Lehen lanera joateko Errekalderraino trena hartzen nuen eta gero Andoina joateko auto-busa.



**Susana Martin
Cantero**

Etxealdia

Bai, erraz gaine-ra. Gidatzeko baimena atera berria dut, baina behar-beharrezkoa denan bakarrik erabiltzen dut kotxea. Orain arte, berriz, garraio publikoekin edo lagu-nekin moldatu izan naiz.



**Fernando
Iturralde Zabala**

Galtzaragaina

Nahikoa lan izan-go nuke kotxerik gabe ibiltzeko. Zubietatik usurbila etortzeko hor nonbait, baina lanera joateko... Kotxea askotan erabiltzen dut, gehiegi agian. Batzutan txirrindaz etortzen baga-ra ere kotxea hartzera ohituta nago.



**Silvia Rodriguez
Perez**

Munalurra

Nik ez daukat ko-txerik eta auto-busez ibiltzen naiz. Orain arte behintzat ez dut kotxearen beha-rik izan eta ondo moldatzen naiz haruntz eta honuntz ibiltzerakoan.



**Enrike Huizi
Olaizola**

Eguzkitzaldea

Zer erremedio, kotxerik gabe moldatu beharko genuke. Hala ere kotxea gehiegitan erabiltzen dudala konturatzen naiz. Kotxerik gabe lanera joateko, adibidez, goizo jeiki beharko nuke eta gai-nera bi tren ezberdin hartu behar-ko nituzke, beraz... Hori bai, egun batean moldatuko nintzateke.



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



**ZUMETA
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapo txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

Oier Zubiria: *“Telebistan ikusten ari nintzena pelikula bat zela pentsatu nuen”*

World Trade Center-eko dorre bikien eta Pentagonoaren aurkako erasoek aztoratuta utzi dute mundua. Azken aste hauetan komunikabideetan eta herrian ere bai, noski, gertakizun hau izan da hizpide nagusia eta guk, momentu hartan Estatu Batuetan zegoen usurbildar baten testigantza jaso nahi izan dugu. Oier Zubiria Atlantian zegoen, New York-etik 1.200 kilometrora, erasoak gertatu zenean.

Non zinen hegazkinak dorre bikietan eta Pentagonoan erori zirenean?

Hura guztia goizeko 9.00ak aldera gertatu zenez ni oraindik ohean lo nengoen. Etxekoak ordu horretan deitzeakoak ziren. Deitu ere egin zuten, baina ni ohean negonez gertatutakoaz ez arduratzeko ez ninduten esnatu. Jaiki nintzenean telebistan ikusi nuen gertatutakoa eta hasieran, behintzat, pelikula bat zela uste nuen. Harrituta gelditu nintzen. Telebistan New York eta Washington-eko irudiak ematen zituzten etengabe eta Fox Atlanta telebista katearen bidez jakin genuen Atlanta eta EEBBetako beste estatu guztietan komertzio guztiak itxita zeudela.

Erasoen ondoren beldurrik pasa al zenuten?

Hasieran ezjakintasuna zen nagusi. Ez zekiten erasoak izan zen ala ez, zenbat hegazkin zeuden galduta... Ondoren eraso terroristak izan zirela baieztatu zutenean eta guda egoera ezarria zegoela zabaldu zenean “zer da hau?” esaten nion nire buruari. Hala ere, egun hartan bertan kalera irten ginen. Dena itxita zego-



en, tabernak, dendak... Gau hartan beisbol partida bat ikusteko sarrerak genituen, baina ezin izan genuen ikusi.

Zein izan zen bertako jendearen erantzuna hasierako egun haietan?

Arraza ezberdineko jende asko dago han eta musulmanak beldurrez zeuden, izan ere kaleko jende arrunta hauen kontrako erasoak egiten hasi ziren. Estatubatuarrek oso “patriotak” direla argi gelditu da. Erasoren ondoren inoiz baino Estatu Batuetako bandera gehiago ikusten ziren kaleetan, kotxeetan, jantzietan... Horrez gain “ez gaituzte hondoratu”, “aurrera atera gaitezke”... honelako mezuak zabaltzen zituzten katean. Erasoen ondoren estatubatuar izateaz harroago zeudela uste dut nik.

Erasoak eraso, zu ia astebe-te beranduago itzuli zara ezta?

Bai. Erasoa asteartean izan zen eta nik ostiralean itzuli behar nuen. Ostiralean oraindik aireportua itxita zegoen eta hurrengo asteazkenean hartu nuen itzulerako hegazkina. Iganderako hegaldiak martxan jarrita zeuden, baina egun horietarako lekuak aurretik hartuta zeudenez nor-

baitek huts egiten zuenean hauen ordeztartzen zuten aurrez bidaiatu gabe gelditu zen jendea. Nire aurretik hegaldirik gabe gelditu zen jende asko zegoen, eta horregatik itzuli nintzen hain berandu.

Aireportuan segurtasun neurri haundiagoak hartu al dituzte erasoaren ondoren?

Polizia ugari zebilen, bizikletaz eta oinez ibiltzen direnak, FBIkoak... Azken hauek hegazkinean sartu eta jende normalarekin bidaiatzen zuten. Hala ere, miaketak ugartu egin dira. Musulman tankerakoak beste ilara batetara eramane eta arakatzerakoan galdera pila bat egiten zizkieten... Ni, behintzat, ez ninduten arakatu.

Hegazkinera sartu zinenean beldurrik pasa al zenuen?

Aireportuan segurtasun neurri haundiak zeuden, eta alde horretatik lasai nengoen. “Zerbait gertatzen bada gertatzen da eta kitto” pentsatzen nuen nirekiko. Hala ere, putzua zeharkatu eta etxetik gertu egongo nintzela pentsatzeak lasaitasuna ematen zidan. Etxean okerrago zeuden. Telefonoz ondo nengoela esaten nien baina telebistan ikusten zutenarekin ez zidaten sinisten.

Asteburuetan Eusko Trenen autobusak Urbiletik pasatzeko proposamena

Eusko Tren enpresa Donostia eta Zumaiatik datozen autobusak asteburuetan Urbil merkatal zentritik pasatzeko aukera aztertzen ari da. Foru Aldundiko garraio eta errepide saila eta Eusko Trenen artean hainbat bilera egin ondoren, autobusek asteburuetan beren ibilbidea aldatu dezakete laister. Foru Aldundikoak garraio enpresa honen azken proposamenaren zain daude.

Eusko Tren enpresak Foru Aldundiaren bitartez udalari egin zion eskaera batetik dator guztia. Duela hilabete batzuk Txikierdiko autobus geltokian (Donostiatik Usurbila bidean) beste aldean dagoen txabolaren antzekoa egiteko eskatu zitzaion udalari, baina udalak ezezkua eman zuen.

"Urbil ireki zutenetik jende askok erabiltzen du Txikierdiko geltokia, baina errepidea zeharkatu behar denez oso arriskutsua da. Asteburuetan gazte asko joaten da Urbila eta gauean, autobusa hartzeko ilunpetan, askotan euriarekin pasa behar izaten dute alde batetik bestera". Joxe Antonio Altunaren esanetan



udalak hor txabolarik ez dute-larriko argi dute.

Horregatik Donostia nahiz Zarautz aldetik zetozen autobusak Urbilera eta Lasartera joateko dagoen "errotanda haunditik", Urbila sartu gabe pasatzeko proposamena egin zuen udalak. *"Autobusak Michelingo aparkaleku ondoko bidetik, Arsuaganeko etxebizitza berrien albotik pasa eta bide horretan bi geltokiak jarri zitezkeela esan genien. 600 metro gehiago dira, baina bai Lasartera eta bai Urbila joateko zerbitzu askoz hobea eskaintzeko aukera zegoela ikusi genuen".*

Udalaren proposamen honen ondotik Eusko Trenek beste proposamen bat egin zuen: autobusak Urbiletik pasa eta Irubideko errontodatik ateratzea. Foru Aldundia eta Eusko Trenen artean egindako azken bileren arabera aukera honi heltzea erabaki dute, baina larunbata eta igandeko arratsaldeko zerbitzuan bakarrik sartuko lirateke autobusak Urbila. Garraio eta errepide sailetik adierazi digutenez azken proposamena orain Eusko Tren enpresaren esku dago, azken proposamen honen inguruko azken erantzunaren zain baitaude.



➔ Atallu

Udalak enpresa ezberdinei Atallu industrialdeko bost partzela saldu zizkienetik hila-bete batzuk pasa dira. Orain, ordea, industrialdea bere osotasunean gauzatze-ko lurrak mugitzen hasi dira. Abuztuan ekin zioten lanari, baina irailaren etorrerarekin batera lur horietan eraikin desberdinak jarri ahal izateko lanak areagotu egin dira.



Lehiaketa



Zer dago faltan, zer soberan?

Asmatzaileen artean
Bordatxo tabernan bi
pertsonentzat afaria
zozketatuko dugu

Aurreko argazkia



Erantzuna



Irabazlea

Irune Lasarte Encinas

Saria

Tragoxkan bi pertsonentzat afaria

Kale Nagusia 100
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 13

LABE-GOXO



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater
konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



Euskaral presorak etxera!

N•I

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia
hemen aurkituko duzu

Udazkeneko moda berria zuretzat!

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

TXURRUT

TABERNA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel.: 943 36 00 80

IRAILAK 30 igandea

- **Andatza Kultur Elkarateak Erniorako iteera antolatu du egun honetarako. Itteera goizeko 8.00etan izango da frontoi parean**

OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra saltzen da. Telf. 943 362424
- ✎ Gitarra española bat dut salgai. Admira Juanita marka. Ehun bikoitzeak eta forraturiko forro beltzarekin. Ia erabili gabea, oso egokira onean dagoena. Prezioa: 16.000 pezeta. Telf. 678 375 390.
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Betaurreko batzuk galdu dira anbulategi inguruan funda gris batekin. Aurkitu dituenak udaltxera eraman ditzala. Urrezko belarritakoa galdu nuen hilaren 15ean Kalezarko plazan. Aurkitzen duenari ordainduko zaio. Telf. 943 360643
- ✎ Lonja bat, batez ere trastero bezala erabiltzeko, erosiko genuke. Kalezar auzoan egon behar du derrigorrez. Telefonoa: 943. 36.14.49. Ordutegia: 13.30etatik 14.30 etara eta 20.00etatik -20.30etara.
- ✎ Txori kaiola haundiak ematen ditugu modu onean. Telf. 943 364354
- ✎ Motozerra elektrikoa salgai. Sugeurra prestatzeko primerakoa. Telf: 943 364354
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara .
- ✎ Abuztuaren amaieran betaurreko graduatuak galdu nituen Urbil-Usurbil ibilbidean. Fundarik gabe, hori eta marroi antzekoak. Telf. 943 371495
- ✎ Giltza batzuk galdu ditut Eguzkitzaldea inguruan. Aurkitu dituenak 652718884 telefonora deitu dezake.
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- ✎ Pisu bat dut salgai Atxegalden. Haundia eta ikuspegi ederrarekin. 22 milioi pezeta. Telf. 943370147 edo 616235366
- ✎ Neska bat eskaintzen da gauean umeak zaintzeko. Telf. 943 371447 (Belen)
- ✎ Umea zaintzeko eta etxeako lanak egiteko neska bat behar dut. Lan ordutegia goizeko 8.00etatik 14.30etara. Telf. 943366952



Aterpe eskulangintza taldeak aurten ere urrian irekiko du bere tailerra Etxealdian. Bertan tailaketa, marrazkia eta pintura, zaharberritzeak eta eskulanak landu ahal izango dira. Izena eman nahi duenak 943-360744 telefonora deitu beharko du

Urteko jarduera ekonomikoen gainerako zerga

Usurbilgo udalerrian jarduera ekonomikoren bat burutzen duten herritar eta enpresei jakinarazten zaie urriaren 1etik azaroaren 10era bitarteko lanegunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dela borondatezko epean Ekonomi Jardueren gainerako Zerga.

Irailaren 10a baino lehen helbideratutako ordainagiriak banku edo aurrezki kutxatik kobratuko dira zuzenean 2001ko urriaren 20an.

Helbideratu gabeko ordainagiriak, orde, zergadunak adierazitako helbide fiskalera bidaliko dira Urriaren aurreneko astean, **Udaletxeko zergabilketa bulegoan, Kutxa, Euskadiko kutxa edo Gipuzkoano banketxean** ordainduak izan daitezten helbide fiskalera bidalitako ordainagiria erakutsi beharko delarik.

Era berean, zergadunek helbideratu gabe dituzten ordainagiriak domiziliatzeko aukera izango dute ordainagiriarekin bat igortzen den helbideratze ereduarekin bete eta udal txera zuzendu beharko dutelarik edo banketxean ordaintzen den kasuan bertan agindua emanaz.

Egunero goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00arte zergadunak ordainagiriak ordaindu ahal izango ditu. Urriaren 20a iritsi eta, zergadunak domiziliatu gabe duen kasuan, ordainagiria etxean ez badu jaso, Usurbilgo udal txeko zergabilketa zerbitzuan eskatu beharko du borondatezko epea amaitu baino lehen. Domiziliaturik daukatenean, azaroaren hasieran banketxetik jasoko dute ordainagiria.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, Gipuzkoako Ogasun Foralak premiamendu bidezko jarduen bideari ekingo dio besterik gabe, ordaindu ez diren kuotak %20ko gaitzargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituztelarik bere gain.



Noaúa! Kultur Elkarteak herriko taldeekin elkarlanerako bidea urratu nahi du

Noaúa! Kultur Elkarteak seigarren urtea osatu du aldizkaria hamabostero-hamabostero kalera-tzen, etenik gabe. Horretaz gain, beste hainbat ekimen bultzatu ditu elkarte honek. Horien artean kokatzen dugu herriko taldeen arteko elkarlana bideratzeko, zuekako bakoitzarekin 1998an sinatu genuen hitzarmena.

Hori dela eta, kultur elkarte bezala, gure hurrengo erronka horixe izango da; batetik, hitzarmena sinatua duzuen taldeekin elkarlana sakondu eta, bestetik, azken urte hauetan herrian sortu diren talde berrie-kin hitzarmen berriak gauzatu, herriari ahalik eta kultur bizimodu aberatsena eskaintzeko. Ildo honetan, hurrengo hilabeteetan horixe izango da gure iparrorratza; batetik, 1998an talde ezberdinekin sinatu genituen hitzarmenak zuekin batera bilera batean berrikusi eta egin beharreko aldaketak



egin. Eta era berean, hitzarmen berriak sinatu beste gaitzarako taldeekin.

Hauetaz gain ere, Noaúa! Kultur Elkarteak elkarlanerako bidea urratu du beste zenbait elkarterekin batera: Plis plas txalo ta jolas egitaraua, tabernariak eta udalarekin batera antolatzen ditugun ekitaldiak eta hemen kokatzen dugu ere AEKrekin batera herriko merkataritza euskalduntzeko egitasmoaren 2.fasea ere.

Ekimen guztiok herri dinamika-ren sendotasu-naren seinale dira. Eta hor argi dugu zein den gure funtzioa: herriko dinamika horri ahalik eta etekinik handiena ateratzearren gure azpiegitura denon esku-
ra jartzea.

Izango da tar-tean zer hobeturik. Baina, hori denon artean egin beharreko lana da. Hau da, aipatu dugun helburua lortuko badugu zertan eta nola hobeto dezakegun denon zeregina da.

Beraz, hor luzatzen dizuegu gure proposamena, ontzat hartuz gero, horretara bideratuko ditugu hurrengo hilabeteetan gure indar eta ahalegin guztiak.

Ireki atea Noaúa! Kultur Elkarteari eta egin zaitez bazkide!

Aspaldi bazabiltza bazkide egin nahian, edo bazkide egin nahi duen norbait ezagutzen baduzu, Aitziber laster gerturatuko da zurea!

BAZKIDE TXARTEA

5000 PEZETA URTE OSORAKO



Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____



Momentu honetan 525 bazkidek osatzen dute Noaúa! Kultur Elkarte

USURBILGO OFIZIOAK ZURE

ESKURA DITUZU

Igeltseritza

URDANTZI

**ERRAZKIN
IGELTSEKITZA**

Kale Nagusia, 1

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

Santuenea ☎ 629 42 05 65

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teitatu enberritza



Fatxadu konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANZATZIS

Igeltseritza eta pintura

Juan Jose enea, 6

Kalezar

% 943 36 05 50- 606 37 21 05

Pinturak

**RAMON
BARCENILLA**

- Pikor pintura eta gotele lanak
- Papereztatze-lanak
- Pintura-lanak orohar

Mobila: 609 46 09 66

*Pinturas
lon*

943 83 09 37- 670 39 75 04

Iurgintza

**IÑAKI
LATAILLADE**

Iturgintza gas eta bero-
gintza

INSTALAKUN -

Mobila: 609 888021

PORTULARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

JOSEBA

ARANGU

☎ 943 83 00 72

Elektrizitatea

MIKEL IZAGI

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

Telf: 943 36 50 95

Aroztegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko
aluminioegurrez-
ko

Agir Telf: 43 37 55 71

**JOSE RAMON
IBARGOEN**

Neurriko altzariak eta sukaldeak
Errotaberrí kalea, 3 Osinalde

☎ 943 36 14 48 -

Faxa: 943 36 69 45

**JOSE MARI
KATZA**

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12

Eskola

**JOSE ANTO-
NIO**

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

**EUGENIO
NORIEGA**

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

Gida honetan azaldu nahi
baduzu, deitu!
943 36 03 21
telefonora